

ERANSKINA

Lankidetzeta-hitzarmena, Hezkuntza Departamentuaren eta

(r)en artekoa, 2020-2021 ikasturtean bere herriko ikastetxeetan baimendutako eskola jantokietan garraiatu gabeko jankideak hartzeko laguntzak kudeatzekoa.

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

BILDU DIRA

ALDE BATETIK, Begoña Unzué Vela andrea, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusia dena, Hezkuntza Departamentuaren izenean.

BESTE ALDETIK,

jauna/andrea,

(r)en

izenean.

Bi aldeak aritzen dira beren karguak betez eta duten ordezkartzaren izenean, eta elkarri aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko behar adinako lege gaitasuna, eta, hori dela eta

AZALDU DUTE

1.

toki entitateak bere herriko ikastetxean baimendutako eskola jantokian garraiatu gabeko jankideak hartzeagatiko transferentzia bat jaso nahi du.

2. Hezkuntza Departamentuak adierazi du aurreko ataleko toki entitatearekin lankidetzan aritu nahi duela transferentzia hori finantzatzeko.

3. Horrenbestez, ados egonda eta duten ordezkartzarekin bat, hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

1. HELBURUA.

Oinarri arautzaile hauen helburua da 1.500 biztanletik beherako udalei baimentzen diren eskola jantokietan garraiatu gabeko jankideak hartzeagatik eman beharreko transferentzia arautzea, "biztanleak landa-inguruneetan gera daitezten lagunduko duen diskriminazio positiboa sustatzeko".

2. ONURADUNAK.

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izanen dira honako baldintza hauek betetzen dituzten Nafarroako udalak:

- 1.500 biztanletik behera izatea.
- Haien herrietako ikastetxean Hezkuntza Departamentuak baimendutako eskola jantoki bat izatea.
- Garraiatu gabeko ikasleak izatea, haien herrietan erroldatuta daudenak, ikastetxe horretara doazenak eta 2020ko irailean, urrian eta azaroan eskola jantokia erabiltzen dutenak.
- Hezkuntza Departamentuaren transferentziaren aurretik justifikatzea ikasle onuradunentzako laguntzak ordaindu dituztela.

3. XEDEA.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzaren xedea da, garraiatu gabeko ikasleek beren gain hartzen duten gastuaren zati bat finantzatzea soilik, haien herriko ikastetxeko jantoki zerbitzua erabiltzen badute 2020ko irailean, urrian eta azaroan, baimendutako eskola jantokietan eta 1.500 biztanletik beherako udaletan.

4. DIRULAGUNTZAREN KOPURUAK ETA GEHIENEO ZENBATEKOA.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 99.996,60 € da, 2020. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "(E) 1.500 biztanletik beherako udalei garraiatu gabeko ikasleak baimendutako eskola jantokietan hartzeagatik eman beharreko transferentzia" izeneko 410004 41620 4609 324102 partidaren kargura.

Diruz lagundu beharreko zenbatekoa ezin izanen da diruz laguntzen den jardueraren benetako kostua baino handiagoa izan.

5. BEKAREN ONURADUNAREN BETEBEHARRAK.

Onuradunak betebeharrak hauek ditu:

- Dirulaguntzaren zenbatekoak ematen diren xedeetarako erabiltzea.
- Organo emaileak egin beharreko egiaztatze-jarduketak onartzea, jarduketa horietan eskatutako argibide guztiak emanez.
- 2020ko abenduaren 15a baino lehen, toki entitate onuradunek gardentasun betebeharrari buruzko egiaztatzeak aurkeztu beharko dituzte, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen araberrakoak. Izan litezkeen zehapen ondorioak galarazi gabe, onuradunak informazioa emateko duen betebeharra urratuz gero, ez zaio emandako dirulaguntza ordainduko.

6. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

2020ko abenduaren 15a baino lehen, toki entitateek ikasleen jantokiko gastua benetan bere gain hartu duenaren kontuetan dagozkien diru-sarrerak egin izanaren justifikazioa aurkeztu beharko dute.

Hezkuntza Departamentuak dirulaguntza ordainduko du. Ordainketa bakarra egingen da, 2020aren barnean, aurreko paragrafoan adierazitako justifikazioak jaso eta gero.

10. JARDUERA IKUSKATZEA.

Hezkuntza Departamentuko Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzuko langileek egoki iritzitako bisita guztiak egiten ahalko dituzte jarduera ematen den aldian. Dirulaguntzaren entitate onuraduna beharturik egonen da langile horiek beharrezkotzat jotzen dituzten ikuskatze jarduera guztiak erraztera.

8. ITZULKETAK, ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

Itzulketak, arau-hauste eta zehapenen arloan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 34. artikulutik 37.era eta 42.etik 46.era xedatutakoaren arabera jokatuko da.

9. INDARRA HARTZEA ETA INDARRALDIA.

Hitzarmen honek sinatu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2020ko abenduaren 31ra arte izanen du indarra.

10. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK.

Oinarri hauen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahalko da, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita, alde batera utzi gabe Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epeetan.